



---

# ELKARBIZITZA-BIZIKASI PLANA

---

Deustuko Ikastola



## 1. SARRERA

DEUSTUKO IKASTOLA ikastetxearen hezkuntza-proiektuak, besteak beste, helburu hauek ditu:

1. Gure ikasleek tolerantzia, errespetua, askatasuna eta elkartasuna bezalako balioak barneratzea, balio horiek landu, garatu eta gaurko munduan duten esanahia eta ondorioak ulertzea bideratutako jardueren bidez. Balio horiek erreferentzia izango dira eguneroko lanean.
2. Ikasleen, irakasleen, gurasoen eta irakasleak ez diren langileen arteko partaidetza, elkarbizitza, eta elkarrekiko errespetuaren sustapena, ikasteko eta elkarbizitzarako benetako komunitate bat osatzeko.
3. Gure estamendu guztien artean errespetuzko komunikazioa eraiki, libreki adierazteko giroa erraztuz, egoera ezberdinen aurrean bakoitzari zor zaion errespetua kontuan izanez eta norbera den bezala onartuz.
4. Adostutako arauak, betebeharrak eta eskubideak ezagutu eta bete.
5. Arazoei irtenbidea aurkitzeko denbora eskaini eta prozedura hezitzaileak adostu elkarren artean ongi sentitzeko.
6. Guztion artean errespetuzko komunikazioa sortu.
7. Lasaitasunez eman gure iritziak.
8. Bakoitza den bezala onartu.
9. Arazoei konponbidea aurkitzeko denbora eskaini.
10. Guztiontzat bide aberasgarriak adostu.

### Elkarbizitza

Plana aipatutako helburuak lortzeko funtsezko tresna izango da.

Antolakuntza eta Jarduera Araudian, dagokien atalean,

elkarbizitza-arauak, neurri zuzentzaileak etab. aipatzen dira, zeinak plan honetan jasotako printzipio eta jarraibideekin bat etorriko diren.

Tutoretza Plana eta bertan jasotzen diren helburuak estuki loturik daude Elkarbizitza Plan honekin.

Tutoretza Plana II eranskinean aurkitzen da.

Elkarbizitza-plan honek gure ikastetxeko elkarbizitzaren diseinu bat izan nahi du, eta organo eskudunek adostutako proiektu eta planekin bat datorren garapen- eta kudeaketa-bideak ezarri eta sistematizatzeko dituen.

Ikastetxearen ezaugarriak

## Testuingurua

IPI Deustuko ikastola, izenak adierazten duen moduan, Bilboko Deustua auzoan kokatuta dago. Deustuko hirigunean bertan kokatuta dago eta Deustuko San Pedroko (Doneperriagako) eta Erriberako (Deustuibarrako) ikasleak hartzen ditu, metroz, autobusez edo kotxez etortzen direnak inguruko auzoetatik.

Ikastolara datozen umeen familien bizitza-maila ertaina da eta gurasoen ikasketa-mailaren batezbestekoa altua. ISEI-IVEIk emandako azken datuen arabera ikastolako familien gizarte, ekonomia eta kultura mailak altuak dira.

Familia-hizkuntzari dagokionez etxeetan egiten den euskararen erabilera %35ekoa da, gutxi gorabehera.

Ikastetxe honek hogeita hamar urte baino gehiago daramatza elkarbizitzarekin loturiko gaiak lantzen, eta DBH abiarazi zenetik lehentasunezko lan-ildo bihurtu da, hezkuntza komunitateak beharrezkotzat jotzen baitzuen alderdi horri lehenbailehen heltzea. 1997-1998 ikasturtean Olagarro proiektuaren perfila egiten hasi ginen, 1998-1999 ikasturtean elaboratu zen eta 1999-2000 ikasturtean martxan hasi zen.

Bere helburuak:

- edozein arazori erantzuna lehenbailehen emon
- bitartekaritza lanaren bitartez koonpondu arazoak, horretarako pertsona bat liberatuta zegoen tutoreei, ikasleei eta gurasoei laguntza emateko.
- protokoloak sortu arazo desberdinen aurrean jarraibidea izateko.
- genero-ikuspegitik, koherentzia eman ikastetxeak martxan dituen hainbat ekimen, asmo eta programari.

Honetan aitzindariak izan ginen eta Udalak saritu egin zuen gure Ikastola.

Gaur egun, ikasleek ikastetxeko bizimoduan modu aktiboan parte hartzen dute, ordezkari, batzorde eta abarren bidez: eskola kontseiluan, behatokian...

Hauteskunde-kanpainak antolatzen ditugu ikasgelako, ordezkari izateko hautagaien artean. Gero eta interes handiagoa antzematen da ikasgelako ordezkari izateko edo ordezkariak aukeratzeko unean.

Irakasleen eta familien partaidetza Ordezkaritza Organo Gorenean positiboa eta aktiboa da, ikasleena gutxiago, arratsaldean batzeak batzuetan traba egiten dielako azterketak prestatzeko.

Ikastetxeko ikasleen absentismo-indizea oso txikia da, gehienetan 0.

Ikasturtea errepikatu behar duten ikastetxeko ikasleen batezbestekoa [%0`5] ingurukoa da.

Laguntza-premia bereziak dituzten ikasleen batezbestekoa [%0`5] da.

Jantokiko arduraduna eta ikasketaburuak astero batzen dira koordinazio-bilera egiteko eta honako gai hauek eztabaidatzeko: sarrera-irteera, korridore, atsedenaldi eta abarretan arauak betetzen ote diren ikusteko jarraipenak egin.

Ikastetxeko guneak ez dira nahiko ume guztiek jolastu ahal izateko behar besteko espazioarekin baina nahikoak dira ikastetxean elkarbizitza positiboa garatzeko, jolasgaraian jolastokia zaintzen dutenentzat ez dagoelako gune kontrolaezinik. Oro har ikastetxeko elkarbizitza-giroa honela sailka dezakegu: ona onargarria

Elkarbizitza-gaietan ikastetxeak eskarmentu luzea du:

Betidanik egon da gurasoekiko harremana elkarbizitza dela-eta. 1998an Olagarro proiektua sortu zen bizikidetza hobetzeko bitartekaritzaren bidez. 2013-14 ikasturtean Elkarbizitza Behatokiak ordezkatu zuen eta orain ikasleen arteko talde bat sortu da, euren arreta guneak ezagutarazteko eta aztertzeke.

Badira hamarkada batzuk gure ikastetxeak bere IHPko helburu nagusitzat ezartzen duela kalitatezko irakaskuntza ematea ingurune bizigarri, seguru eta hezkuntzazko batean.

Mota askotako familiak daude, eta gehienak seme bat edo biko familia tradizionalak badira ere, azken urteetan bestelako familia-egitura duten ikasle-kopurua hazi egin da.

Gurasoek, orokorrean, bigarren mailako ikasketak dituzte, eta neurri handian unibertsitate-ikasketak. Etxerik gehienetan ordenagailua dute, eta, orokorrean, irakurtzeko ohitura.

Familia gehienekin harremana ona da.

Aisialdiko jarduera desberdinak aukeratzen dituzte, mutilek eta neskek.

Telebista eta bideo-jokoak, denbora-pasa modura, maila bertsuan erabiltzen dituzte neskek zein mutilek.

Ikasleen %30k baino gehiagok eskolaz kanpoko jarduerak ikastetxean bertan egiten ditu, eta %10k ikastetxetik kanpo.

%10 curriculumari loturiko eskola partikularretara joaten da, eta %30 ingeleseko eskoletara.

Familiek, orokorrean, garrantzia ematen diete ikasketei, eta gehiago erreparatzen diote errendimendu akademikoari, integrazioari edo ikaskideekin harremanak izateko dituzten zailtasunei baino.

Ikasgelako bileretara eta tutoreekin dituzten elkarrizketetara joaten dira, eta gehienak Guraso Elkarteetan daude. Halere, gutxi batzuek hartzen dute parte ikastetxeak antolatutako jardueretan (gurasoen eskola, eskolaz kanpoko jardueren antolaketa, etab.).

Irakasleen esku-hartzea eskatzen duten portaerak, nagusiki, hauek dira:

- Distrazioak, ikaskideekin hitz egitea, eskola-orduetan irakasleak agintzen dituen zereginak egin beharrean bestelakoak egitea, eskola etetea.
- Etxerako lanak egin gabe etortzea edo beharrezko materiala ahaztea.
- Hiztegi zikina, behar ez bezalako, berdinen arteko harremanetarako desegokia, isekak.
- Neurri txikiagoan, irainak, zantzu sexista edo arrazista duten isekak etab.
- Borroka gutxi izaten dira. Urteetan jazarpen kasu gutxi batzuk izan ditugu.
- Azken batean, gure ikastetxean elkarbizitza lehentasuneko gaia da, baina joerak antzematen ditugu; asko eta asko bizitzen ari garen gizartearen isla dira kezkatzen gaituztenak eta modu sistematiko eta eraginkorragoan aztertu nahi ditugunak Elkarbizitza Plan honen alorrean.

Gure Elkarbizitza Plana egiteko jarraitu dugun prozesua honako hau da:

#### 1. Sentsibilizazio-fasea.

2013-2014 ikasturtean lehen hiruhilekoan hausnarketa egin genuen parte garen guztion artean, ikasgelako elkarbizitza-arazoei heltzeko irakasleek estilo desberdinak zituztelako. Antolakuntza eta Jarduera Araudia edo Barne Araudia baino esparru zabalago batean koherentziaz ekiteko beharra gailendu zitzaion arauen berrikuspen soilari, eta asmo handiko proiektu bihurtu zen. Zuzendaria izan zen hasieratik proiektuaren buru, eta batzorde bat izendatu zuen prozesuaren plangintza egin eta dinamizatzeko.

## 2. BIZIKIDETZAREN DEFINIZIOA

Gure harremanak zaindu, Ikastolako giroa ona izateko guztiok beharrezkoak garelako.

Elkar entzuten, ulertzen, errespetatzen.

Elkarrekin ikasten, lan egiten, eskola hobetzen.

Elkarrengan konfidantza izaten.

## 3. IKASTETXEKO BIZIKIDETZAREN DIAGNOSTIKOA

2013-2014 ikasturtean zehar, gure Ikastolan elkarbizitzaren egoerari buruzko zenbait inkesta burutu ziren, eta alderdi hauei buruzko iritziak jaso ziren:

- Ikasgeletan eta, oro har, ikastetxean bizi den elkarbizitza-giroa.
- Irakasleen eta ikasleen arteko harremana, ikasleen artekoa, irakasleen eta familien artekoa, irakasleak ez diren langileen eta familia edo ikasleen artekoa, irakasleen eta irakasleak ez diren langileen artekoa.
- Ikastetxean edo ikasgeletan jasotako arauari buruzko gogobetetze- edo desadostasun- maila eta betetze-mailari buruzko iritzia.
- Irakaskuntza-estilo edo –jarduerak, denen partaidetza sustatzen duten irakaskuntza-metodologiak eta –ikuspegiak.
- Ikastetxean, arazoak sortzen dituzten ikasleekin erabili ohi diren neurri zuzentzaileak

Inkesten emaitza honako hau izan zen:

- **IRAKASLEAK:**  
Irakasleen %65ek ikastetxean elkarbizitza ona edo oso ona zegoela erantzun zuen.  
. %30ek uste du hobetu ahal dela.  
. %5ek ez du erantzunik ematen.
- **IKASLEAK:** ikasleen %75 pozik dago ikastetxeko elkarbizitza positiboaren mailarekin. %35ek uste du ez dela ona. % 10 sentitu da noizbait gaizki ikaskide edo irakasleren batek emaniko tratuarengatik.
- **FAMILIAK:** familien %60k uste du ikastetxeko araudia zuzena dela.
- **IRAKASLEAK EZ DIREN LANGILEAK:** %50ek babesik gabe sentitzen dela ikasleen jarrera txarren aurrean. %50ek uste du ikastetxeko elkarbizitza ona dela. %50ek hezkuntza-komunitatearen babesa nabaritzen du eguneroko lanean.

Hezkuntza-komunitatearen iritzi guztiak aztertu ondoren, zein arlotan sakondu behar zen erabaki zen, eta, horren ondorioz, ondorengo atalean ikus daitezkeen helburuak aurkeztu ziren.

- Ikasleak:

Ikasgelako eta ikastetxeko elkarbizitzaren kudeaketan ikasleen inplikazioa sakontzea eta esku-hartzeak sistematizatzea.

- Hezkidetzak

Ikastetxe mistoa izatetik inolako ekintza diskriminatzailearik gertatzen ez den hezkidetzarik ikastetxea izatera pasatzea, non bi sexuen arteko errespetua eta sexua bizitzeko moduekiko begirunea identitate ezaugarriak izango diren.

- Baloreak

Ikastetxe bat izatea non tolerantzia, errespetua, elkartasuna eta lankidetzak balio partekatutako izango diren eta ekintza jakin batzuetan islatuko diren.

- Kulturartekotasuna

Partaide guztiek ikastetxean ordezkaturako kultura guztien balioa aitortzen duten komunitatea eratzea, ikastetxeari balio erantsia ematen dion ezaugarri modura hartuz.

- Arrazakeria, diskriminazioa, bazterketa gainditzea, azaltzen direneko egoerak desitxuraturaz, eztabaida bultzatuz, enpatia eta pertsona guztien eskubideen aitortzea sustatuz.

- Ikaskuntza emozionala

Beren mugak onartuko dituzten eta beren gatazkak eta frustrazioak kudeatzeko gai izango diren pertsonak prestatzea.

- Curriculumak

Curriculumeko arlo eta irakasgai guztietan elkarrekin bizitzen ikasteko gaitasunaren zenbait alderdi zeharka landu, balioetsi eta ebaluatzea lortzea.

Ikasturte berean bigarren hiruhilekoan lehen aipaturako talde bakoitzari galdeketa bat eman zitzaion. Galdeketa emaitzak hirugarren hiruhilekoaren hasieran jakinarazi ziren.

Argi geratu zen gai honekiko ardura eta konpromezua.

Hirugarren hiruhilekoan, Arautegiaren helburu orokorrak aukeratu eta lehenetsi ziren. Arautegia I eranskinean aurkitzen da.

Prozesu osoan zehar arrakasta gehien izan duten jarduerak hauek izan dira:

- Hezkuntza-komunitatearen partaidetza handia, proposaturiko galdeketei erantzutean.
- Inkesten bidez jasotako datuei buruz lantaldeek eginiko hausnarketa.

- Erabakiak batera hartzea, hala nola, helburuen lehentasuna ezartzean edo jarduerak proposatzean...
- Elkarbizitza positiboari buruz, hezkuntza-komunitatean sorturiko giroa.

#### 4. HELBURUEN LORPENA SUSTATZEKO EGITURAK

##### 4.1.Elkarbizitzaren Behatokia

Elkarbizitzaren Behatokia gure kontsulta-organoa da eta gure ikastetxeko elkarbizitza ezagutu, aztertu eta ebaluatzeko baliabidea dugu. Eskola-jarduera hobetu nahi dugu, elkarbizitzaren ebaluazioa eta diagnostikoaren bidez. Konpromisoa hartzen dugu sistematikoki datuak jasotzeko, honako gai hauei buruz:

a) Ikasleen arteko gatazkak

Liskarrak (zein leku eta unetan eta nolakoak), eskola-jazarpena (zenbat aldiz, sorburuak, tipologia, erabilitako bitartekoak...)

b) Irakasleen eta ikasleen arteko gatazkak. Zenbat aldiz, zein taldetan, gatazka-mota

c) Gurasoek parte hartzen duten gatazkak. Zenbat aldiz eta zein motatakoak.

Halaber, honako hau egin nahi dugu:

- Arrisku-faktoreak identifikatu eta ekintza eraginkorrak proposatu (noiz, non. Adibidez: eguerdian, jantokian, garraioan).
- Beste ikastetxe batzuekin jardunbide egokien esperientziak partekatu.
- Prestakuntza arloko jarduerak proposatu.
- Gure Elkarbizitza Plana aztertu eta hobetzeko proposamenak aurkeztu.
- Elkar zaintzeko kultura garatu, izan ere, nor bere burua eta besteak zaintzeak, bien poztasuna eta aberastasuna dakartza. Arrakasta akademikoa ez ezik, ikastetxeko giroa eta eskola-komunitateko kide guztien arrakasta pertsonala ere hobetu nahi dugu, pertsona guztiak aintzat hartuak, entzunak eta erabakiak hartzean partaide izan daitezen nahi dugu.

Pertsona hauek osatzen dute:

- Zuzendaritza-taldekoak: zuzendaria eta ikasketaburuak
- Guraso-elkartekoak: Eider Arrieta eta Naia Astuy
- Ikasle bi
- Jantokiko-arduraduna: Juani Gómez



#### 4.2. Beste egitura batzuk

Behatokiaz gain, ikastetxe honetan elkarbizitzaren kudeaketarako

Behatokian sorturiko erabakiak eta proposamenak garatzeko eta

eguneroko gatazken kudeaketaren esparruan talde dinamizatzailerak bilduko da konpondu beharreko arazoren bat dagoenean, talde dinamizatzailerak zuzendariak, LHko eta DBHko ikasketaburuek, orientatzaileak eta aholkulariak osatuko dute.

### 5. JARDUTEKO IRIZPIDEAK ETA ILDO OROKORRAK

#### 5.1. Jarduteko irizpide orokorrak

Hezkuntza-komunitate osoak kontuan izango ditu jarduteko irizpide hauek:

- Elkarbizitza positiboren sustapena esparru guztietan eta curriculumeko arlo eta ikasgai guztietan egingo da.
- Gure ikasleen inklusioa eta hezkuntza-arrakasta oinarritzat hartzen ditugu, guztion ongizatearekin eta elkarbizitza positiboaren lorpenarekin zuzeneko lotura baitute.
- Partaidetza izango da elkarbizitza-araudiari buruzko erabakiak hartzeko lehentasunezko bidea.
- Arauak eta erabakiak denon eskubideen eta ongizatearen bermea sustatzen duten elementuak izango dira, eta hala ulertu eta partekatuko ditu komunitate osoak.
- Hezkuntza komunitateko pertsona heldu guztiek, garrantzizko egoera liskartsuren bat ezagutuz gero, esku hartu edota haren berri eman beharko diete arduradunei.
- Gatazkak konpontzeko lehentasuna emango zaie adiskidetzeko eta kalteak konpontzeko prozedurei.
- Gatazkak kudeatzeko beti aztertu beharko dira lehenik arrazoiak, eta, hala badagokio, hartu beharreko neurriaren eragin berrezitzailea. Hartzen diren neurriek helburu berrezitzailea izan beharko dute beti. Adiskidetzea eta kalteak konpontzea lehentasunezko prozedurak izango dira.
- Ikasleek gatazkak konpontzeko duten modua eta proposatzen dugun elkarbizitza-balioen araberako jokaera duten ala ez kontuan hartuko da elkarbizitzarako gaitasunaren ebaluazioan eta, ondorioz, oinarritzko gaitasunen garapen-maila neurtzeko.

- Jazarpen-kasuen, eta edozein bereizketa- eta indarkeria-motaren aurrean eta bereziki genero arrazoiengatik bereizketa eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean, tolerantziarik ez.

## 5.2. Jarduteko ildo orokorrak

Lehentasunezkoak izango dira ikastetxeko bizimoduan partaidetza sustatzeko jarduerak, hala nola, ikasleen aldetik (ordezkarien batzarra, ikasgelako bilera, OOG eta Behatokian parte-hartzea...), familien aldetik (Guraso Elkarteak, OOG eta Behatokian parte-hartzea) eta irakasleen aldetik (klastroa, sailak/ zikloak, PKB, OOG,Elkarbizitzaren Behatokia...).

Era berean lehentasuna izango dute komunikazio-kanal argi eta eraginkorrak mantentzera bideratutako jarduerak, hala nola, zuzendaritzaren eta klastroaren arteko komunikazio-kanala, zuzendaritzaren eta irakasleen artekoa, irakasleen eta ikasleen artekoa, irakasleen eta familien artekoa, eta zuzendaritzaren eta AZLen artekoa.

Tutoretza-jarduerako planak ere lehentasuna izango du: banakako tutoretza eta taldeko tutoretza, talde-kohesioa lortzeko estrategiak, hezkuntza emozionala eta gizarte-trebetasunetan.

Ikasleen artean elkarreragin positiboak sustatuko dituzten metodologiak erabiliko dira, ikasteko modu desberdinei erantzun, eskola inklusiboaren printzipioa errespetatu eta ikasle guztien arrakasta lortuko dutenak.

Bullying-a eta ziberbullying-a berariaz landuko dira.

Irakasle, ikasle, familia eta irakasleak ez diren langileei zuzenduriko prestakuntza-planak garatuko dira, gatazkari eta kudeatzeko moduari buruzko hezkuntza-ikuspuntuaren inguruan.

Hezkidetzako eta kulturarteko eskola baten alde lan egingo da.

Ikastetxeko elkarbizitza ebaluazio-saio guztietan jorratu beharreko gaia izango da.

Datuak bildu eta proposamenak egingo dira, ondoren ikastetxeko zuzendaritzaren bidez, Elkarbizitzaren Behatokiari bidaltzeko.

Sistematikoki aztertuko dugu ea irakatsi eta ikasteko prozesuaren plangintzak, metodologiak, ebaluazio-prozesuek, irakasleen arteko koordinazioak eta familiekiko koordinazioak sustatu eta laguntzen dieten gure ikasleei arrakasta lortzen.

Prestakuntza antolatuko da prozesu horien eraginkortasuna areagotzeko eta eskola-arrakastarako plan bat abiaraziko da, zeinak ikasle guztien motibazioa sustatuko duen ikasketa,

bere gaitasunen aprobetxamendua eta hezkuntza-arrakasta lortze aldera, autoestimua eta ikasteko atsegina areagotu eta frustrazioa eta porrotaren sentsazioa saihestuz.

Garrantzi berezia ematen diogu gatazkei aurrea hartzeari. Gatazka ez da zerbait negatiboa eta ekidin beharrekotzat hartzen.

Elkarbizitzak berezkoa du gatazka; beraz, irakasleriari eta eskola-komunitateko kideei baliabideak ematen dizkiegu gatazkak modu eraikitzailean konpontzeko. Tutoretza-jarduerako planaren diseinu eta garapenean honako baliabide hauek aipatuko dira: elkar ezagutzeko baliabideak, elkarrenganako estimua lantzeko, ekimenak irmoki entzun eta proposatzeko, elkarlanerako, erabaki bateratuak hartzeko, gatazkei modu bateratuan aurre egiteko.

## 6. BIZIKIDETZA PLANAREN URTEKO ZEHAZTAPENA

Ikastetxeko Urteko Planean, urtero sartuko dugu ikastetxeko Elkarbizitza hobetzeko helburu bat gutxienez. Elkarbizitza Planean jasotako helburuetako baten zehaztapena izango da.

Gainerako urteko helburuen kasuan gertatzen den bezala, plangintza egin eta jarduerak garatuko dira helburu horiek ere lortzeko.

Jarduera horien garatu eta jarraitzeko arduradunak finkatuko dira, eta baita denborak, baliabideak eta jarraipen- eta lorpen-adierazleen zehaztapena ere.

Helburu horien ebaluazioa ikasturte amaierako memorian islatuko da , eta kontuan hartuko da hurrengo ikasturteko elkarbizitza-helburuak ezartzean. Elkarbizitzaren Behatokiak, hau da eskola-komunitateko sektoreen ordezkaritza biltzen duen estamentuak, urtero elkarbizitzarako helburuak proposatuko ditu, eta garatu beharreko jardueren diseinuan eta jarraipenean parte hartuko du.

Helburuek eta aukeratutako jarduerak, berekin dituzte zenbait prestakuntza-ekintza, eta Ikastetxeko urteko Planaren prestakuntza-atalean jasoko dira. Halaber, Urteko Planean estamentuen parte hartzeko modua, ordezkaritza, eta bakoitzaren zereginak eta erantzukizunak.

Prozedurak ezarriko dira komunitateko kide guztiek ikasturte bakoitzeko helburuak ezagut ditzaten, eta haiek lortzen lagun dezaten

# **AURKIBIDEA**

## **1.- HIZKUNTZA**

## **2.- SARREREN ANTOLAKUNTZA**

### **2.1.- HH**

#### **2.1.1.-HH 2**

##### **2.1.1.1.- EGOKITZAPENA**

#### **2.1.2- HH3, 4 ETA 5**

##### **2.1.2.1.- EGOKITZAPENA (3 URTE)**

### **2.2. - LH**

#### **2.2.1. - LH 1. ETA 2. ZIKLOA**

#### **2.2.2. - LH 3. ZIKLOA**

#### **2.2.3. - DBH**

## **3. - IRTEERAK**

### **3.1- IKASTOLATIK ETXERA EGUNERO**

### **3.2 - IKASTOLATIK KANPORA LANTZEAN BEHIN**

## **4.- IRAILA ETA EKAINeko ORDUTEGIA**

## **5.- SARRERA-IRTEERETARAKO ARAUAK**

### **5.1.- ARAU HAUSTEAK**

## **6.- ATSEDENALDIEN ANTOLAKUNTZA**

### **6.1.- ATSEDENALDIETARAKO ARAUAK**

## **7.- ESKOLARA JOATEA**

### **7.1.- ARAU HAUSTEAK**

## **8.- PORTAERA**

### **8.1.- ARAU HAUSTEAK**

## **9.- PASILLOAK ETA KOMUNAK**

### **9.1.- ARAU HAUSTEAK**

## **10.- IKASGELAKO ARAUTEGIA**

### **10.1.- ARAU HAUSTEAK**

### **10.2.- ETAPAZ ETAPA**

#### **10.2.1.- HH**

#### **10.2.2.- LH**

**10.2.2.1. - 1. ETA 2. MAILAK**

**10.2.2.2. - 3. 4. 5. ETA 6. MAILAK**

**10.2.3. - DBH**

**11.- TELEFONO MUGIKORRAK**

**12.- JANTOKIA**

**12.1.- JANTOKIAREN ANTOLAMENDUA**

**12.1.1.- HH 2.**

**12.1.2.- HH 3. 4. eta 5.**

**12.1.3.- LH 1. 2. ETA 3.**

**12.1.4.- LH 3. 4. ETA 5.**

**12.1.5.- DBH.**

**12.2.- JANTOKIAREN FUNTZIONAMENDURAKO ARAUTEGIA**

**12.2.1.- IRAKASLEEI DAGOZKIEN ARAUAK**

**12.2.2.- IKASLEEI DAGOZKIEN ARAUAK**

**12.2.2.1.- ARAU HAUSTEAK**

**12.2.3.- GURASOEI DAGOZKIEN ARAUAK**

**12.2.4.- ZAINZAILEEI DAGOZKIEN ARAUAK**

**12.2.5.- JANTOKIKO ARDURADUNARI DAGOZKION LANAK**

**12.2.6.- JANTOKI BATZORDEARI DAGOZKION LANAK**

**12.2.7.- GASCAK EGIN BEHARREKOA**

## 1.-HIZKUNTZA

Elkar bizitzarako hizkuntzak duen garrantzia kontuan izanik, hainbat aspektu aintzat izan behar ditugu.

- 1.1.-Irakasleok euskararen erabileraren eredu izan behar dugu, gure artean beti euskaraz eginez.
- 1.2.-Ikasleek irakasleekin zein irakasleek ikasleekin euskaraz hitz egin behar dute.
- 1.3.- Ikasleen arteko harremanak euskaraz izan daitezen ahaleginak egin behar ditugu.
- 1.4- Ikasgelatik kanpokoko euskararen erabilera suspertzeko bideak bilatuko dira.

## 2.- SARREREN ANTOLAKUNTZA

### **2.1.- HH**

Urte biko umeen irakasleak beti-beti egoten dira geletan, bertara joaten direlako gurasoak umeak eramatera.

Lehenengo hiruhilekoan 4 urte eta 5 urteko irakasleen artean egiten dute ateko zaintza eta 3 urteko irakasleak geletan egoten dira umeen zain. Bigarren hiruhilekotik aurrera txandakatu egiten dira 4 eta 5 urteko irakasleekin batera.

#### **2.1.1.- HH 2**

Jon Arrospide kaleko atetik sartu eta HH 2 urtekoen gelaranzko sarreratik sartzen dira.

##### **2.1.1.1.- EGOKITZAPENA**

Egutegiaren arabera, lehenengo lau egunetan umeen hiru talde egiten dira, talde bakoitza hiru ordu laurden egoten da gelan, taldetik taldera ordu laurdeneko tartea izaten delarik gela ordenatzeko.

Hurrengo lau egunetan umeen talde bi egiten dira eta talde bakoitza ordu eta laurden egoten da gelan, taldetik taldera ordu laurdeneko tartea izaten delarik gela ordenatzeko.

Goizez gauden bitarteko hurrengo egunetan talde bat izaten da eta 9:30etik 12:35era egoten dira.

Goiz eta arratsaldez hasten garenetik izaten duten ordutegia hauxe da:

9:30-10:00etatik (sarrera malgua)-12:35era eta 15:00etatik-17:00etara.

Goizez gauden bitartean jantokian geratzen diren umeak bazkaldu ostean joaten dira etxera (13:30ean)

### **2.1.2.- HH (3, 4, eta 5 urtekoak)**

Jon Arrospide kaleko atetik sartu eta HHko sarreratik sartzen dira 9:30ean ikasturtean zehar eta 9:00etan ordutegi trinkoa dugunean.

#### **2.1.2.1.- 3 URTEKOEN EGOKITZAPENA**

Lehenengo astean 09:30ean sartuko dira.

Goizez gauden bitartean jantokian geratzen diren umeek aukera izango dute bazkaldu ostean etxera joateko(13:30ean)

Goiz eta arratsaldez hasten garenetik izaten duten ordutegia hauxe da: 9:30-12:35 eta 15:00-17:00

## **2.2.- LH**

Lehenengo mailatik 4. mailarako umeak ate berberetik sartzen direnez, sarreretan egunero egoten dira tutore bi. Hau txandaka egiten dute, astero bi irakasle egotea ziurtatuz.

Bosgarren eta seigarren mailako tutoreak txandakatu egiten dira eta beti bat egoten da atean.

### **2.2.1.- LH-KO 1., 2., 3. ETA 4. MAILAK**

Ikasleak Jon Arrospide kaleko atetik sartu eta ondoren eurentzako sarreratik sartzen dira 9:30ean ikasturtean zehar eta 9:00etan jarraiangor ordutegia dugunean.

### **2.2.2.- LH-KO 5. ETA 6. MAILAK**

Ikasleak Jon Arrospide kaleko atetik sartu eta ondoren euren sarreratik sartzen dira, 9:30ean ikasturtean zehar eta 9:00etan jarraiangor ordutegia dugunean.

Arratsaldez danak 3:00retan lehen aipatutako sarreretatik sartzen dira.

## **2.3.- DBH**

Irakasleek ez dute ateetako zaintzarik egiten, atezainak egoten dira 10 minutuz atea itxi arte.

DBHko ikasleak Jon Arrospide kaleko atetik sartu eta ondoren euren eskailera zabalenetik sartzen dira astelehen, astearte eta ostegunetan 8:30ean eta eguazten eta barikuetan, 8:00etan.

Euren pisutik kanpo joan behar dutenean eskailera horretatik ibiliko dira beti, baina 208 gelara joan behar dutenean, Iruña kaletik ateratzen direnean eta arratsaldez sartzen direnean, 14:30ean, eskailera estutik ibiliko dira.

### 3.- IRTEERAK

#### **3.1- IKASTOLATIK ETXERA EGUNERO**

HHn eta LHn 13:00ean izaten da eguerdiko irteera. Ordu honetatik 15:00ak arte eskolako instalazioak jantokian edo eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzen duten ikasleek erabiltzeko dira.

HH eta LHn arratsaldeetako irteerak sartu diren ateetatik egingo dituzte.

DBHn astelehen, astearte eta ostegunetan, 13:00ean irteten dira Jon Arrospide kaleko atetik eta asteazken zein ostiraletan 13:30ean, Iruña kalekotik.

#### **3.2.- IKASTOLATIK KANPORA LANTZEAN BEHIN**

Txango guztiak eskola-orduetan egiten dira, beraz, derrigorrezkoak dira.

Txangoak baino lehen zirkularra bidaliko da etxeetara, nora, zein ordutatik zein ordutara, eta DBHn prezioa zein den jakin dezaten.

Diru horren ardura txangoaren antolatzailearena izango da, beraz, irakasle horrexek batuko du (DBH).

### 4. - IRAILA ETA EKAINEKO ORDUTEGIA

#### **HH**

URTE BIKOAK 09:00-12:35

BESTEAK 09:00-13:00

#### **LH**

09:00-13:00

#### **DBH**

08:00-13:30

### 5.- SARRERA-IRTEERETARAKO ARAUAK

Ateak bost minutu beranduago itxi egingo dira eta beranduago datozen ikasleak Iruña kaleko atetik sartuko dira justifikapenagaz.

Ikasleen gurasoak ezin izango dira geletara igo. Abisuren bat eman nahi izanez gero atezainaren bidez egin beharko dute. Gurasoren bat sarri joango balitz gelara, zuzendaritzatik jakinaraziko zaio horren ondorioa.



Ikasleak etortzean zein jasotzean sarri berandutuz gero, irakasleek zuzendaritza jakinaren gainean jarriko du eta honek gurasoei jakinaraziko die. Berandutzen jarraituz gero, legeak agintzen digunez, gizarte zerbitzuei abisatuko zaie.

#### **5.1.- ARAU HAUSTEAK**

DBH: Jarrera desegokia izanez gero eskaileretan dabiltzanean, astebetetz eskailera zaintzaile egongo dira jokaera bideratzeko.

### **6.- ATSEDENALDIEN ANTOLAKUNTZA**

**HH 2:** Euren gela aurreko esparruan.

**HH 3, 4 eta 5:** Lehenengo solairuko patioan goizetan eta arratsaldeetan 3 urtekoek lehenengo solairuko patioan eta besteek, libre egonez gero, bigarren solairuko patioan edota zelai berdean.

**LH 1, 2 eta 3:** Zelai berdean.

**LH 4, 5 eta 6:** Beheko patioan.

**DBH:** Atsedenaldia beheko eta goiko jolastokietan egiten dutenez, astero txandakatzen dute jolastokia eta irakasle bi egoten dira bakoitzean.

En el patio grande no se puede jugar al fútbol, solo se puede jugar en el frontón a pelota y en el patio grande a baloncesto; en el patio verde se puede jugar a fútbol y un día a la semana jugarán las niñas. En Carnavales los del primer ciclo no podrán jugar a fútbol, ese tiempo lo utilizarán para ensayar las danzas del Carnaval.

Patio handian futbolera ezin da jolastu, bakarrik frontoian pelotara eta patioan saskibaloira; zelai berdean futbolera ahal da jolastu eta astean egun bat neskek jolasteko izango da. Inauterietan 1. Ziklokoek ezin izango dute futbolera jolastu, Inauterietarako dantzak ensaiatzeko erabiliko dute denbora hori.

#### **6.1.- ATSEDENALDIETARAKO ARAUAK**

- Futboleant asteleheneetan 1. eta 2. mailakoak ibiliko dira eta astearteetan 3. mailakoak.
- Eguraldi ona denean 3 irakasle egongo dira, bat maila bakoitzeko:
- Astelehen eta asteazkenean 1A-2A-3A taldeetako tutoreak
- Astearte eta ostegunetan 1B-2B-3B taldeetako tutoreak
- Ostiraletan atea zaintzea ez dagokienak egongo dira.

- Eguraldi txarra denean geletan edota pasilloetan geratuko dira eta zaintzak bardin izango dira eta tutore guztiak izango dira bertan.
- Kideak eta irakasleak errespetuz tratatuko dira.
- Komunetan ezin da jolastu
- Borrokarekin zerikusi duten jokoak saihestuko dira.
- Gatazkei berehala erantzungo zaie.
- Gelak eta pasilloak hutsik egongo dira, ikasleak irakasleren batekin soilik geratu ahal izango dira gelan.
- Jolasetan ez da inor baztertuko.
- Ingurua errespetatuko da, garbi mantenduko da.
- DBHko ikasleek beheko jolastokian ezin dute futbolekin ibili, beraz, ziklo biak txandakatu egiten dira astero.

## 7.- ESKOLARA JOATEA

Gaur egun eta legez DBH bukatu arte eskolara joatea derrigorrezkoa da.

Asistentzia kontrolatzea eta arau-haustek zuzentzea irakasleen ardura dira. Honako hauek kontrolatuko dira:

- Ez-etortzeak
- Berandu heltzea
- Kanporaketak (DBH)

Eskoletara joateari buruzko arau-hauste guztiak gurasoen sinaduraz justifikatu beharko dira dagokion tutorearen aurrean.

Ikasleek irakaslea heldu arte gelan egon beharko dute.

Puntualtasuna taxuz bete behar da.

**DBHn** hauetaz gain:

Ikaslea, eskola-saioetan behin eta berriro axolagabekeriak jokatzeagatik edota portaera txarra izateagatik, ikasgelatik kanporatu daiteke beti lanarekin. Zaintza mahaian geratuko da lan egiten, falta orria bete eta gero. Kaleratu duen irakasleak ere orri hori bete behar izango du eta ikaslearekin akordio batera heldu beharko du.

Irakaslea berandu baletor, klaseko arduradunak zaintzan dagoen irakaslea ohartaraziko du.

## 7.1.- ARAU HAUSTEAK

Hutsegite bakoitzak dagokion neurri zuzentzailea izango du, beti ere ikaslearen adina eta hutsegitearen garrantzia kontuan hartuz.

**LHn** arazoa gertatu denean dagoen irakasleak bideratuko du. Lehenengo ahoz konpontzen saiatuko da, beti parkamena eskatuz. Ez bada lortzen tutorearekin eta arazoak jarraituz, hartu beharreko neurriak hauexek izan daitezke:

- Gurasoei jakinaraztea.
- Zuzendaritzatik pasatzea gurasoak aurrean daudela.

**DBHn** kanporaketa edo falta kopuruaren arabera, istilua izan duen irakaslearekin saiatuko da konpontzen, ez bada lortzen tutorearekin eta arazoak jarraituz gero ikasketa buruarekin erabakiko da hartu beharreko neurria. Hauexek izan daitezke:

- Gurasoei jakinaraztea.
- Ikastolako lanetan laguntzea.
- Zuzendaritzatik pasatzea gurasoak aurrean daudela.
- Ikastolatik egunetarako kanporatzea.....
- Ebaluazio batean, ikasleak ikasgai jakin batean **justifikaturik gabeko 3 eskola-ordu edo gehiagotara** huts egingo balu, tutoreak idatziz jakinaraziko lieke gurasoei ohiko moduan.

**Ikasleen eskubide eta betebeharren dekretuari jarraituko zaio kasu guztietan:**

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dif5/eu\\_2080/adjuntos/derechos\\_deberes\\_e.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dif5/eu_2080/adjuntos/derechos_deberes_e.pdf)

## 8.- PORTAERA

Irakaslea eta ikaskidea edozein egoeratan errespetuz tratatu beharko da.

- Ikastolako esparru osoan **debekatuta dago erretzea**.
- Ikasleak ezingo dira ikastolatik irten eskola-orduetan ez bada bere ardura duen nagusi batekin (DBH 3 eta 4ko ikasleak irten daitezke baina beti gurasoen edo tutore legalen baimenarekin)

- Irakasleei, irakasle ez diren langileei edo ikaskideei errespetua galtzea ez da inondik inora onartuko . Falta larritzat joko da.
- Ikasleek etxera eraman behar dituzte gurasoei bidaltzen zaizkien ikastolako ohar ofizialak. Horrela adierazten denean, gurasoek behar bezala izenpetuta ekarri behar dituzte oharrak.

### **8.1.- ARAU HAUSTEAK**

- Irakasleak, tutoreak edo ikasketa buruak hitz egingo du ikaslearekin hutsegitea falta larria bihurtu ez dadin. Hutsegite bakoitzak dagokion neurri zuzentzailea izango du, beti ere ikaslearen adina eta hutsegitearen garrantzia kontuan hartuz.
- Larritzat jotzen den errespetu faltak neurri zuzentzaile egokitua izango du.
- Ikasleak 3 falta arin betetzen duenean, gurasoei jakinaraziko zaie falta larri bihurtu ez dadin.
- Ikasleen eskubide eta betebeharren dekretua hartuko dugu beti oinarritzat.
- Ikasleen eskubide eta betebeharren dekretuari jarraituko zaio kasu guztietan.

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dif5/eu\\_2080/adjuntos/derechos\\_deberes\\_e.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dif5/eu_2080/adjuntos/derechos_deberes_e.pdf)

## **9.- PASILLOAK ETA KOMUNAK**

- Pasilloetan ezin da korrika ibili.
- Ahots-tonu egoki batez hitz egingo dugu.
- Eskola-orduetan irakaslearen baimenik gabe ezin da komunera joan.
- Garbi mantenduko ditugu pasilloak eta komunak.
- Baloia eskuetan eroan behar da, lurrera bota barik.
- Eskola arteetan ikasleak ezin dira komunera joan baimen barik.

**DBH:** ikasleak ezin dira pasilloetan egon, kaleratuak izan ezik, eta berandu heltzen diren ikasleek zaintzan dagoen irakaslearengana joan behar dute.

Eskilaretan era desegokian dabiltzan umeek hartuko dute eskilara zaintzeko ardura. Horretarako jaka berezia jantziko dute.

### **9.1.- ARAU HAUSTEAK**

- Korrika eginez gero, bide berbera era egokian errepikatuko da.
- Oihuka ibiliz gero, bazterrean geratuko dira une batez.

- Zerbait lurrera botaz gero, garbitu egingo da.
- Baloiarekin jolasten harrapatuz gero, egun bat baloirik gabe geratuko da. Errepikatuz gero, denbora gehiago geratuko da baloirik gabe.
- Komunetan zein pasilloetan zerbait apurtuta edo hondatuta agertuz gero, errudunik egon ezik, erabiltzaile guztien artean ordaindu beharko dute konponketa.
- Aurreko egoeraren bat errepikatuz gero, gertaeraren inguruko hausnarketa idatzi eta talde aurrean irakurriko da.

## 10.-IKASGELAKO ARAUTEGIA

- Ingurukoak errespetuz tratatuko dira.
- Gelako materialak guztionak dira: konpartitu eta zaindu behar dira.
- Beharrezko ditugun materialak : arkatzak, atzinguak... prest eduki behar dira eta lana amaitzean dana batu eta txukundu behar da.
- Gela barruan lan giroa mantenduko da, inor molestatu gabe.
- Isilik eta astiro irten eta sartu behar da gelatik.
- Taldeka hitz egiterakoan, txandaka egingo da.
- Puntualtasuna oso garrantzitsua da; berandu etorri gero, ez da ikasten eta ikaskideak molestatzen dira.
- Zerbait eskatu behar bada, atsegina izaten ahalegindu behar da.
- Atsedendietan, ikasleak ezin izango dira ikasgeletan egon. Egotekotan, tutorea edota dagokion irakaslearen presentzia izan beharko da.
- Irakasleren batek ikasleak gelan utzi nahi izango balitu, berak egon beharko luke ikasleen arduradun.
- Ikastolako materialak hausten direnean, lehenbailehen tutoreari jakinaraziko zaio.
- Istripurik gertatu ez dadin, galerazita dago leihoetara irtetea.
- Ikasleek egindako azterketak ikusteko eskubidea daukate.
- Ikasleak ezin izango dira irakasle-gelan sartu, irakasleren baten baimenik gabe.
- Libururen bat galdu edo apurtuz gero, ondo konpondu edo berria ekarri beharko da.

- DBHn hauetaz gain eskola-orduen tartetean, ikasleak, hurrengo irakaslea etorri arte, geletan geratuko dira. Bitarte hau lasaitzeko, aurreko klaseko materiala gorde eta hurrengoa prestatzeko aprobetxatuko dute, ezinezkoa izanik komunitara joatea.

### **10.1.- ARAU HAUSTEAK**

- Norbait errespetuz tratatu ezik, lehenengo ahoz eta, errepikatuz gero, idatziz eskatuko da parkamena gertatuko azalduz.
- Ikastolako materialak hausten direnean, denona denez, lehenbilen tutoreari jakinaraziko zaio. Ikasgeletan gertatuz gero, egileek ordaindu beharko dute eta erruduna nor den jakin ezean, gelako guztien artean ordaindu beharko da.
- Ikasleren batek lan giroa mantenduko ez balu, lekuz aldatu ahal izango da.
- Etxeko lanak egin ezik gurasoak jakinaren gainean jarriko dira.
- Hitz egiteko txanda errespetatu ezik, txanda galduko da.
- Egoera errepikatuz gero, gertaeraren inguruko hausnarketa idatzi eta talde aurrean irakurriko da

### **10.2.- ETAPAZ ETAPA**

#### **10.2.1.-HH**

Gatazkak sortzen direnean, inplikatuena bertsoak entzun eta irtenbide bat adosten saiatuko gara. Adina eta beharizanaren arabera, bitartekariaren laguntza maila ezberdina izango da.

Pasabideetan eta komuneko guneetan korrika egin gabe eta zarata ahalik eta gutxien egiten saiatuko gara.

#### **10.2.2- LH**

##### **10.2.2.1- 1. ETA 2. MAILAK**

Ikasle batzuen arteko gatazka arinak:

- Gertatukoari buruz partaide ezberdinek dauzkaten bertsoak, arrazoiak eta kezak entzungo ditugu.
- Gertatutakoa argitu ondoren, partaideei denbora bat emango diegu, beraien artean hitz eginez konponbide bat bilatzeko eta adosteko.

- Ikasleek konponbidea adostea lortuko ez balute, irakasleok erabaki bat hartuko genuke: lan bereziak eginaraztea edo taldetik kanpo aldi batez aldentuta egonaraztea.

Ikasle batek falta larri bat egiten duenean:

- Falta larria: falta arinak askotan errepikatzea, bortizki jotzea, errespetu falta larriak egitea, besteei gauzak kentzea eta ikastolako edo ikasleen materialak hondatzea.
- Gertatukoari buruz partaide ezberdinek dauzkaten bertsioak, arrazoiak eta kexak entzungo ditugu.
- Errudunen gurasoei gertatutakoaren berri emango diegu.

“Bizikidetzaren kontrako gertakari fitxa” beteko dugu eta ikasleari “gometza gorria” jarriko diogu. Tutoreak fitxa hauen kontrola eramango du eta ikasleari buruzko informazioen espedientean bilduko du.

Jarrera gatazkatsua askotan errepikatzen denean:

- Ebaluaketa berebieran 5 “Bizikidetzaren kontrako gertakari fitxa” pilatuz gero, taldeak egin behar dituen ekintza berezietatik kanpo utziko dugu ikasle hori, gurasoen onespina lortu ondoren.
- Aurreko neurria hartu ondoren, ikaslearen aldetik hobekuntzarik ez balego edo sendiaren aldetik erantzun egokia ez balitz lortuko, ikasle horren problematika zuzendaritza taldeari ezagutarazi eta hartu beharreko neurriak diziplina batzordearen esku utziko genituzke.

Bazkalorduan gertatutako gatazkak:

- Begiraleekin hitz egin ondoren, eta gelan tratatzeko moduko gaia dela ikusiko bagenu, tutoretza orduan tratatuko genuke.
- Begiraleek “bizikidetzaren kontrako gertakari fitxa” bete balute, fitxa hori ikaslearen informazioen espedientean gordeko dugu eta gertatukoaren berri gurasoei emango diegu.

#### **10.2.2.2- 3., 4., 5. eta 6. MAILAK**

- Astero tutoretzako orduan aste barruan izan diren arazoak komentatu eta denon artean eztabaidatuko ditugu, hala ere, gertatzen den unean bertan konpontzen ahaleginduko gara.

- Burrukak badaude, entzun alde biak eta zehaztu ahalik eta gehien konturatu daitezzen zergatiaz eta errudunak parkamena eskatuko du.
- Errespetu faltak momentuan bertan moztuko ditugu.
- Gela edo maila desberdinetako umeekin arazoak sortuz gero, momentuan bertan konponduko ditugu.
- Portaerarako kontrol eredu bat daukagu; honek baldintzatuko du irteeretara joatea.
- Arazo larria denean gurasoak informatuko ditugu agendaren bidez edo zuzenean eurekin hitz eginez.

Horrez gain:

Tutoretza orduan, noizbehinka, behaketa egingo da umeen arteko harremanak eta kohesio maila neurtzeko eta jarraitzeko.

Ikasturte hasieran ikasleekin neurriak adosteko ahalegina egingo dugu.

### **10.2.3.- DBH**

Ikaslea, eskola-saioetan behin eta berriro axolagabekeriaz jokatzegatik edota portaera txarra izateagatik, ikasgelatik kanporatu daiteke. Honen ondorioa, falta arina edo larria izan daiteke ikaslearen jarreraren arabera.

Irakasleak, tutoreak edota ikasketa buruak hitz egingo du ikaslearekin hutsegitea falta larria bihurtu ez dadin. Hutsegite bakoitzak dagokion neurri zuzentzailea izango du, betiere ikaslearen adina eta hutsegitearen garrantzia kontuan hartuz.

Hitz egindakoaren arabera ikasleak falta sinatzeko eramango du etxera ala ez.

Larriak jotzen diren faltek, neurri zuzentzaile egokitua izango dute.

Ikasleen eskubide eta betebeharren dekretuari jarraituko zaio kasu guztietan.

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dif5/eu\\_2080/adjuntos/derechos\\_deberes\\_e.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dif5/eu_2080/adjuntos/derechos_deberes_e.pdf)





Deustuko Ikastola IPI  
Iruña 2B – 48014 BILBAO  
www.deustukoikastola.net  
deustuko@euskalnet.net  
Tfnoa: 944 473 645 Faxa: 944 472 977

IKASLEA: .....TALDEA: .....  
IRAKASLEA/BEGIRALEA: ..... DATA: .....

FALTA MOTA:

ARINA

LARRIA

IKASLEAREN IRITZIA:

IRAKASLEAREN/BEGIRALEAREN IRITZIA:

NEURRI ZUZENTZAILEAK (Medidas correctoras):

Gurasoen sinadura

Data

## 11.- TELEFONO MUGIKORRAK

1.- Eskola ordutegi barruan, gurasoak seme-alabekin harremanetan jarri behar badira, zentroko telefono bitartez egingo dute.

2.- Eskola ordutegi barruan ezin izango da mugikorra erabili irakasleen baimenik gabe

3.- Guztiz debekatuta dago inori argazkiak egitea irakasleen baimenik gabe

4.- Baimenik gabe erabiltzekotan:

- Zentroko irakasleek edota jantokiko begiraleek mugikorra eskatu eta konfiskatu dezakete.
- Konfiskatutako mugikorra, ikastetxeko idazkaritzaren ardurapean geratuko da. Irakaslearen familiako tutore edo gurasoei itzuliko zaie. Mugikorra jasotzerakoan, paper bat sinatuko dute non, mugikorra bigarren aldiz erretiratzen bada, FALTA LARRIA kontsideratuko dela adierazten den.
- Lapurtze edo apurketa kasuan ikastetxea ez da gertatutakoaz arduradun izango, nahiz eta beharrezkoa jotzekotan esku-hartzeko eskubidea gordetzen duen.

PROTOKOLOA: <https://drive.google.com/open?id=13K242s-NStUmBvBfXhYrUB2hLhSTLi3c>

## 12.- JANTOKIA

Jantokian zein eguerdiko tartean daudenean, guk hezi behar ditugu ikasleak. Jantokian behar diren moduko elikatzeko ohiturak erakutsi behar zaizkie, eta osasuntsu eta modu egokian hazi daitezen lortu behar da. Horretarako elikadura orekatua bermatzen dugu.

Ezin dugu ahaztu bizikidetasunerako eremua dela, beraz, behar diren moduko harremanak sustatuko dira. Era berean ikaskideenganako eta jantokiko langileenganako errespetua erakutsiko da eta ez da ez diskriminaziorik ez gehiegikeriarik onartuko.

Jantokian bazkaltzea borondatezkoa da, beraz, jantokia erabiltzen duten ikasle eta guraso guztiek araei men egin behar diete.

Elikatzeko ohitura onak, tresneriaren erabilera egokia, besteen tarte errespetatzea eta dena eta denetik jatea sustatuko da jantokian.

Beraz, ikasturtean egongo diren helburu orokorrak hauexek dira:

**A: Norbanakoekiko eta taldearekiko harremanak garatzea ahalik eta errespetu handienarekin**

A-1: Jantokiko zaintzaileak errespetuz tratatu

A-2: Ikaskideak errespetuz tratatu

A-3: Jantokiko arduraduna errespetuz tratatu

A-4: Talde bateko partaide izateari buruz hausnartu

**B: Euskararen erabilera sustatzea**

B-1: Eguneroko eginkizunetan euskara erabiliko da modu naturalean (jantokian/jolastorduan)

B-2: Zaintzaileekin eta ikaskideekin euskaraz hitz egiteko beharrezana garatuko da

**C: Ondo elikatzeko ohiturak barneratzea**

C-1: Modu egokian eta dagokion tonuan hitz egiteko ohitura edukitzearen garrantzia

C-2: Modu autonomoan jaten ikastea (tresneria behar bezala erabiltzea)

**D: Elkarbizitzarako arauak barneratzea**

**E: Bizikidetz**

E-1: Ikasleen interakzio egokia sustatzea

**12.1.- JANTOKIAREN ANTOLAMENDUA**

**12.1.1.- HH 2**

Lanak bi ordu eta erdi irauten du, 12:30etik 15:00rak arte eta guztia aurrera eramateko euren begirale daude.

Umeak **12:35**etan jantokira sartzen dira. Bazakaldu ostean aurpegiak garbitu, pardelak aldatu eta txiza egiten laguntzen zaie; etxera doazen umeak prestatu eta familiakoengana eramaten dira. Ondoren, besteak siestara joaten dira eta esnatu arte egoten dira.

**12.1.2.- HH 3, 4 eta 5**

**12:35:** Umeak euren irakasleekin jeisten dira eta eurekin egongo diren begiraleek jasotzen dituzte.

Umeek, bazkaldu, komunera joan eta ondoren bakoitza bere lekura joango da.

HH3: lotara joaten dira gela bitan. Hiruretan esnatu eta begirale bakoitzak eramaten ditu dagokien gelara.

HH 4 eta 5: patiora igo, batzuk eskolaz kanpoko jardueretara, hortik patiora eta gero gelara.

**12.1.3.- LH 1, 2, 3**

**13:00: Umeak**, gelatik irten eta jantokira joaten dira. Bazkaldu, goiko patiora igo, batzuk eskolaz kanpoko jardueretara joaten dira eta hiruretan guztiak batera euren geletara joaten dira begiraleekin.

#### **12.1.4.- LH 4-5-6**

13:00-14:00: ume batzuk etxera eta veste batzuk eskolaz kanpoko jardueretara joaten dira, besteak patioan geratzen dira.

14:00-14:15 jantokian sartu 15:00ak arte. Ordu horretan gelara joaten dira.

**BALOIAREN ERABILERA:** Ikasturte hasieran zozketaz erabakitzen da maila bakoitzak zein egunetan jolastuko duen baloiarekin. Astean egun bitan ez dute balorik erabiliko.

Baloia begiraleek eramaten dute. Euria denean ezin da baloiarekin ibili.

Asteazken eta ostiraletan, DBHkoak ez daudenez frontoia erabiltzen dute.

#### **12.1.5.- DBH**

##### **ASTELEHENA – ASTEARTEA – OSTEGUNA**

13:00: gelatik irten eta beheko patiora joaten dira. Begirale batek irteerako atea zainduko du jantokiko umeren bat atera ez dadin; besteek patioa zaintzen dute.

DBH txanda bitan bananduta dago; bat 13:30ean eta bestea 14:00etan.

13:30 DBH 1 eta 4koak bazkaltzen sartzen dira: 13:30 – 14:00. Bien bitartean DBH 2 eta 3koak patioan geratzen dira euren begiraleekin. 14:00: DBH 1 eta 4koak patiora joaten dira euren begiraleekin eta DBH2 eta 3koak jantokian sartzen dira.

##### **ASTEAZKENA ETA OSTIRALA**

Arratsaldez klaserik ez daukatenez, patioko antolamendua antzekoa da baina bazkaldu ondoren, etxera joaten dira.

ChromeBook-a daukaten ikasleei aldalekua zabalduko die monitore batek bertan gordetzeko. (GASCAko arduradunarekin adostutako neurria 2018ko urrian).

Ordutegi bat jarri da futboleko ibiltzeko eta DBH 1etik 4rako arazoak ekiditeko.

13:50etik 14:30era patioko atea ixten da giltzaz umeak geletara igo ez daitezen.

## **12.2.- ESKOLA-JANTOKIAREN FUNTZIONAMENDURAKO ARAUTEGIA**

1.- Eskola jantokia ikasle guztientzat eskainitako zerbitzua da, eta horrela ulertu behar dute ikasleek, irakasleek, gurasoek eta zaintzaileek.

2.- Eskola jantokia ona izan dadila lortzeko ezinbestekoa da eskolako lan-talde guztien parte-hartzea, interesa erakustea eta gauzak ondo egin nahi izatea.

3.- Talde bakoitzari betebeharrak eta eskubide jakin batzuk ezarriko zaizkie. Hauek bete ezean, ez litzateke posible izango eskolak eskaini behar duen funtzionamendu ona lortzea.

4.- Jantoki orduetan eta eskola orduetan bete beharreko arauak bat dira; beraz, lekua eta materiala zaindu beharko da, eta era berean, errespetua, laguntza eta diziplina, besteak beste, eduki behar dira.

5.- Eskolako edozein ikasle erabili ahal izango du jantokia. Erabili nahi duenak izena eman beharko du ekainean zehar (ahal den kasuetan).

6.- Jantokiko arduraduna, guraso arduradunak eta zuzendaritza taldea batzartuko dira beharrezkoa den guztietan.

7.- Jantokiko eremua ikasleek egin behar duten beste edozertarako ere erabili ahal izango da, beti ere une desegokietan ez bada.

8.- Eremu hori erabiltzen dutenek ondo utzi beharko dute lekua, zaintzaileen lana ondo egin ahal izateko.

9.- Ikasturte hasieran egiten den lehenengo bileran jakinaraziko zaizkie gurasoei jantokiaren arauak. Dena den, zalantzarik egonez gero, beti egon ahal izango dira jantokiko arduradunarekin.

10.- Ikasle bakoitzari hileroko emango zaio menuaren kopia bat.

11.- Kobratzeko arauak kurtso amaieran berregingo dira.

11.A Erreziboen itzultzeak eragiten dituen gastuak ikasleak berak ordainduko ditu.

11.B Etorri ezean, kuota itzuliko da:

11.B.1.- Jantoki Batzordeak kuota ez itzultzea erabaki dezake.

11.B.2.- Bost egun jarraian etorri ezik, eta beti ere abisatuta, jatekoaren dirua itzuliko da baina begiraleena ez. Diru-itzulketak ikasturte amaieran egingo dira.

Ez etorriaren abisua egun bat lehenago egin beharko da.

Ez da itzultzerik egongo jankideak Hezkuntza Sailetik bekaren bat jasotzen badu.

12.- Ohiko jankideak kurtso hasieratik jantokia erabiltzen duten ikasleak dira. Horrela ez bada, noizbehinkako jankidea izango da.

13.-Kurtsoan zehar jantokira etortzeari utzi ahal izango zaio, baina erabaki

horren ondorioak onartu beharko dira eta begiraleen kostua ordaindu egin beharko da.

14.- Irakasle eskudunak eta zaintzaileak baino ez dira izango bazkalorduetan jantokian eta sukaldean egon daitezkeenak.

### **12.2.1.- IRAKASLEEI DAGOZKIEN ARAUAK**

1.- Irakasleek laguntza eta kolaborazioa erakutsi beharko diete eskolako zaintzaileei lan tutorialaren bitartez.

2.- Irakasle guztiek landu beharko dute klasean arautegi hau, eta ikasleei arauak jakinaraziko dizkiete. Horrela, ikasleak ohartuko dira jantokiak duen garrantziaz.

3.- Lan hau ikasturte hasieran egin beharko da ikasleekin. Beharrezkoa balitz, urtean zehar ere errepikatu daiteke. Ikasturte hasierako ziklo hasieran informatuko dira gurasoak jantokiaren funtzionamenduaz.

4.- Jantokiaren txandei eragiten dien ekintzaren bat antolatuko balitz (jolasak, irteerak...) ekintza hori antolatzen duenak jantokiaren arduradunari jakinaraziko dio, eta halaber, umeak ezarritako orduan jantokira sasoiz heldu daitezen arduratu beharko da.

### **12.2.2.- IKASLEEI DAGOZKIEN ARAUAK**

1.- Bazkari orduetan zaintzaileak dira arduradun gorenak, beraz, errespetatu behar dira.

2.- Ikasleek zaintzaileei lagundu egingo die ahal duten gauzetan.

3.- Ikasleen betebeharrak hauexek dira:

3.1.- Bazkaldu aurretik eta ondoren, eskuak garbituko dituzte.

3.2.- Zaintzaileek agintzen dien lekuan eseriko dira.

3.3.- Ikasleek denetik jan behar dute, nahiz eta bazkaria askotan bere gustukoa ez izan. Menuak profesionalek eginda daude eta adin horretarako aproposenak dira.

3.4.- Ezarritako denbora tartean jan beharko dute, behar den bestekoa dela uste dugulako.

3.5.- Modu egokian jan beharko dute, eta tresneria behar den moduan erabili.

3.6.- Jantokiko tresneria txarto erabiltzeagatik edo nahita apurtzen bada, umearen familiak ordaindu beharko du.

3.7.- Ezin izango da janaririk atera jantokitik kanpo (salbuespenak salbuespen).

3.8.- Jantokira behar den moduan sartu beharko dira. Jantokirako sarrerak lasai egingo dira eta bazkaldu bitartean ez da iskanbilarik izango. Irteeretan ere lasaitasuna izango da nagusi.

- 3.9.- Bazkaltzeko orduan ikaslea ondo eserita egon beharko da, ezin izango da mahaitik altxatu. Zerbait nahi izanez gero, arduradunari eskatu beharko dio.
- 3.10.-Ikaskideenganako eta zaintzaileenganako errespetua izango dute; beraz, hitz egiteko modu egokia erabiliko da eta ez da oihurik egingo.
- 3.11.-Ikaslea ezingo da jantokitik kanpora joan zaintzaileen baimenik gabe.
- 3.12.Jantokiko atsedendietan, ikasleak horretarako propio dauden espazioetan arituko dira, inola ere ez geletan edota pasabideetan
- 4.- Ikasleen eskubideak hauexek dira:
- 4.1.-Janariak kalitatea edukiko du eta behar den neurrian aterako zaie, indarrean dagoen legeriak eskatzen duen bezala.
- 4.2.-Zaintzaileen aldetik behar den arreta eta laguntza jasoko dute, bazkari orduetan nahiz bazkaldu aurretik nahiz bazkaldu ondoren.
- 4.3.-Komunitatea osatzen duten guztiak errespetuz tratatuko dituzte: ikasleak, zaintzaileak...
- 4.4.-Janaria giro onean eta instalazio egokietan eta garbietan edukiko dute.
- 4.5.-Menu bakoitzerako sukaldeko tresneria espezifikoa izango dute.
- 5.-Jantoki orduetan ikasleak ezin izango du eskolako gelarik erabili, zaintzaile baten baimenik ez badu.
- 6.-Bazkaldu aurretik eta ondoren, zaintzaileek zainduko dituzte klaserako ordua heldu arte.
- 7.- Jantokiko erabiltzaileak ezin izango dira eskola eremutik kanpo joan, familiak sinatutako baimenik gabe.
- 8.- Eskatzen zaizkien eta egiteko gai diren zereginetan parte hartuko dute.

#### **12.2.2.1 ARAU HAUSTEAK**

Errespetu faltaren bat balego, edo arautegi honetako zerbait beteko ez balitz, hurrengo hau egingo genuke:

- 1.-Falta arina bada barkamena eskatu beharko du eta jarrera aldatu.
- 2.-Zeozer apurtuko balu txarto erabiltzeagatik, ordaindu egin beharko luke.
- 3.-Ikasleren batek arauak behin baino gehiagotan urratuko balitu, familiei jakinaraziko zaie.
- 4.-Hala eta guztiz ere, berriro arauak urratuko balitu Zuzendaritza jakinaren gainean jarriko da eta familia konbokatuko du jantokiko batzordeak hartuko dituen neurriak

jakinarazteko (ekintza konkretu batzuk bete, egun bat, bi edo gehiago jantokitik kanpo geratu, eta abar).

5.- Hutsa larria bada, jantokia erabiltzeko eskubidea gal daiteke.

**Ikasleen eskubide eta betebeharren dekretuari jarraituko zaio kasu guztietan.**

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dif5/eu\\_2080/adjuntos/derechos\\_deberes\\_e.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dif5/eu_2080/adjuntos/derechos_deberes_e.pdf)

### **12.2.3.- GURASOEI DAGOZKIEN ARAUAK**

Bai jantokian daudenean bai eguerdiko tartean guk hezi beharreko ikasleak dira. Jantokian behar diren moduko elikatzeko ohiturak irakatsi behar zaizkie, eta osasuntsu eta ondo elikatu daitezen lortu behar da. Horretarako, elikadura orekatua eta osasuntsua bermatzen dugu.

Ezin dugu ahaztu bizikidetzarako eremua dela, beraz, behar diren moduko harremanak sustatuko dira. Era berean, ikasleen arteko harreman egokiak sustatuko dira, diskriminaziorik eta gehiegikeriarik gabe.

Jantokirako ezarri diren helburuak lortzeko ezinbestekoa da familien laguntza. Jantokian ez ezik, etxean ere landu behar diren elikadurarekin erlazionatutako ohiturak indartuko dira (inoren laguntzarik gabe jatea, tresneria ondo erabiltzea, denetik jatea...)

1.-Umeren batek jantokian geratu beharra izanez gero, abisua,10.00ak arte emango zaio arduradunari. Bazkaria 6 € izango delarik.

**2.-Umeen aurrean, aintzat hartu begiraleen lana.**

3.- Gurasoek, nahi izanez gero, jantokiari buruzko erabakietan parte hartu ahal izango dute, Jantokiko Batzordearen bitartez.

4.- Arautegia urratzen duten ikasleen gurasoei semeak edo alabak egin duena jakinaraziko zaie, eta onartu ondoren, semeari edo alabari ezarritako neurri zuzentzailea betearaziko diote.

5.- Jantokia erabiltzen duten ikasle guztien gurasoek funtzionamendu arauak ezagutu eta onartu beharko dituzte. Arauok ikasturte hasieran banatuko dira.

6.- Familiek jantokiari buruzko informazioa eskura edukitzeko eskubidea dute.

7.- Jantokiaren erabilera zuzena bermatzeko, gurasoek ere ezarritako ohiturak eta arauak irakatsiko dizkie seme-alabei.

8.- Halere, garrantzitsua da eskatutako eta higienerako hain beharrezkoa den materiala erraztea.



9.- Umeren batek alergia edukiko balu, edo janariren bat toleratuko ez balu, arduradunari jakinaraziko dio osasun-ziurtagiri baten bitartez. Elikadura arazoak direla eta, onartuko dira menu eta dieta bereziak, osasun-ziurtagiriak horrela aholkatzen badu. Ziurtagiri horretan jankideak onartzen ez dituen elikagaien zerrenda agertuko da. Era berean, konturatu barik kalte egiten dion elikagai horretarikoren bat hartuko balu, jarraitu beharreko pausuak agertu behar dira.

10.- Jantoki orduetan ikasleak botikaren bat hartu beharko balu, familiak medikuaren txostena ekarri beharko du, baimena sinatu eta tutoreari eman.

11.- Ikasleari menu idorgarria eman ahal izateko, goizeko 10:00ak baino lehenago abisatu behar da.

#### **12.2.4.- ZAINZAILEEI DAGOZKIEN ARAUAK**

1.- Zaintzaileak jantoki orduetan ikasleekin harremanetan dauden pertsonak dira.

2.- Zaintzaileen lana hurrengo hau da:

2.1.-Lan baldintzak ezagutzea: ordutegia, ratioa, betebeharrak,...

2.2.Irteerak eta sarrerak kontrolatuko ditu, ordenan jarrita egin beharko dira, korrikarik eta oihurik egin gabe.

2.3.-Bazkaltzeko orduan umeek erabiliko duten tresneriaren erabilera zuzena gainbegiratuko du.

2.4.-Ikasleek elikatzeko ohitura onak ikas ditzaten ahaleginduko dira.

2.5.-Behar duten beste janari zerbitzatuko da. Kontrako jarrera erakusten badu, beste arazo batzuk konpontzeko erabiltzen den prozedura ezarriko da.

2.6.-Momentu guztietan egongo da ikasleak zaintzen (bazkaldu aurretik, bitartean eta ondoren).

2.7.-Jolastorduetan ere umeen zainketaz arduratuko da.

Jolasetarako erabiltzen den jarrera kontrolatuko du, eta beharrezkoa bada, parte hartuko du.

2.8.-Inor eroriz gero, kasu egin eta osatu egingo du. Sendaketak egiteko ikastetxeak ezarrita dituen arauak kontuan eduki behar dira. Istripurik badago, jantokiko arduradunari jakinaraziko dio, dagokion protokoloa jarrai dezan.

2.9.-Bulling-a, diskriminazioa, gehiegikeria eta beste batzuk gerta daitezkeen guneak zainduko ditu.

2.10.-Ikasleak eskola eremutik irten ez daitezen kontrolatuko du.

2.11.-Janariaren kalitatea gainbegiratuko du.

2.12.-Ordena eta disziplina betearazi behar ditu.

2.13.-Indarrean dagoen legea betearaziko du.

2.14.-Jantokiko arduradunaren bitartez agertzen diren arazoak, beharrak eta aportazioak jakinaraziko ditu.

2.15.-Jantokiaren arduradunaren bitartez jakinaraziko dizkio eskolari arazoak, beharrianak eta ekarpenak.

2.16.-Sukaldeko langileek:

2.16.1.-Janariaren egoera eta baldintza higienikoak kontrolatuko dituzte.

2.16.2.-Sukaldea eta jantokia batu eta garbitu egin beharko dute.

#### **12.2.5.- JANTOKIKO ARDURADUNARI DAGOZKION LANAK**

1. Urtero, jantokian dauden beharrianen zerrenda egingo du.

2. Bazkariak antolatu eta menuen jarraipena egingo du.

3.- Gainbegiratze lanak egin. Gainbegiratzea, besteak beste, zerbitzua dagoen bitartean hantxe bertan egotea da, jantokiaren funtzionamendu zuzenaz eta diziplinaz arduratuz.

4.- Beharrezkoa den kasuetan, jantokiko erabiltzaileen familiarekin harremanetan jarriko dira.

5.- Elikagaien eta lekuen higiena kontrolatu.

6.- Zerbitzua ondo ibil dadin, beharrezkoa denaz eta indarrean dagoen arautegiak agintzen duenaz arduratuko da Eusko Jaurlaritzako teknikoekin batera.

7.- Jantokiko arduradunarekin hitz egin nahi izanez gero, edukiko duen ordutegia hurrengo da: egunero astelehenetik ostiralera 8:00etatik 10:30etara

#### **12.2.6.- JANTOKI BATZORDEARI DAGOZKION LANAK**

1.- Hilabeteetako kuoten jarraipena egin

2.-Bazkariak antolatu eta menuen jarraipena egingo du arduradunarekin batera.

3.- Jantokiko fondoen kontrol zuzena eta jarraitua eraman.

- 3.1.- Bajen eta alten zerrenda egin.
  - 3.2.- Hilabeteko erreziboak prestatu. Bankutik egindako ordainketen jarraipena eta balantzea egin.
  - 3.3.- Jantokirako beken jarraipena egin.
- 4.- Tresneriaren inbentarioa eta berritzea eguneratu noizean behin.

#### **12.2.7.- GASCAk EGIN BEHARREKOA**

GASCAk langileen burutza funtzionala gauzatuko du. (2018-19 ikasturtetik aurrera)

## **II ERANSKINA**

### **TUTORETZA PLANA**

#### **SARRERA**

##### **1.-TUTOREA ETA TUTORETZAREN ZEREGINAK.**

Tutoretza da guraso, irakasle eta ikasleekin egindako bilera eta elkarrizketen bidez ikasleen martxa akademikoa, pertsonala eta soziala hobetzeko helburua betetzea. Hau da, ikasle bakoitzaren eta talde osoaren ikasketa eta heldutasun prozesuari jarraipena eta laguntza ematea.

##### **1.1-IKASLEEKIKO.**

- \*Taldekako arduradun nagusi gisa jokatzeko eta giro atsegina sortzea.
- \*Taldearen kohesioa bilatzea. Taldea gorpuztea.
- \*Ikastetxean eta lagun taldean integratzen laguntzea eta, ikastetxeko jardueretan parte hartzea ziurtatzea.
- \*Etaparen edo zikloaren aldatzera doazenean, edozein egoera berriren aurrean egokitzen laguntzea.
- \*Ikasleen ikasketa-prozesuaren jarraipen orokorra egitea, bakoitzaren erritmoa zein estrategiak errespetatuz eta beharrezkoa denean laguntza eskeiniz.
- \*Arazoak antzematea, adi egotea eta irtenbideak bideratzea.
- \*Taldekako ikasleen dokumentazio akademikoaz arduratzea.

##### **1.2- TALDEAREN BESTE IRAKASLEEKIKO.**

- \*Gelan esku hartzen duten gainerako irakasleekin koordinatzea eta horiekiko lotura izatea.
- \*Ikasgelako funtzionamanduekin zerikusi duten alderdi guztietan jarrera komuna izatea.
- \*Ikasleen ikasketa prozesu ezberdinetan irakasle laguntzaileekin lankidetzan jardutea.
- \*Ikasleen ebaluazio prozesua koordinatzea eta beharrezko txostena egitea, familia jakinaren gainean jartzeko.

##### **1.3- FAMILIA EDOTA LEGEZKO TUTOREEKIKO.**

- \*Familiekin etengabeko harremanetan egotea: informazioa eman eta jasotzea.

\*Tutoretzaren helburuak ezagutaraztea eta haiekin lankidetzan aritzea.

\*Familiei, beraien seme-alabei hezkuntza prozesuaren berri ematea, honela antolaturik: ikasturte hasieran, kurtso honetako tutoreek bilera orokorra egingo dute, horretan ikasturte horretarako plana azaltzeko; ikasturtean zehar, gutxienez, bi aldiz, bakarkako elkarrizketak bideratuko dira beraien seme-alaben ikasketa prozesuaz jabetzeko.

#### **1.4- TUTORETZA PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA.**

Ikasturtean zehar zikloetako tutore taldeak tutoretza planaren garapenaren jarraipena egingo du.

Ikasturte hasieran sartzen diren irakasle guztiek planaren berri izando dute.

Beharra ikusten denean eta hiruhilebetero ebaluaketa bileretan tutore ez diren irakasleek beraien ekarpenak ekarriko dituzte, eta behar diren esku-hartzeak proposatuko dira.

Ikasturtea amaitzean tutoretza planaren ebaluazio orokorra egingo da, hurrengo irizpideak jarraituz:

- Taldeak eskuratutako gaitasun maila.
- Eduki eta jardueren egokitasuna.
- Ikasle taldearen parte hartzea.
- Ondo atera diren alderdiak, sortutako zailtasunak.
- Hurrengo ikasturterako egin beharreko aldaketak.

#### **HELBURUAK**

##### **Tutoretza Haur Hezkuntzan**

<b>KONTZIENTZIA EMOZIONALA</b>	
<b>HELBURUAK</b>	<b>JARDUERAK</b>
<b>Emozioez jabetzea , izena jartzea eta besteek emozioak antzematea.</b>	<b>Emozioak asmatu Emozioen bikoteak HH 3, 4 eta 5</b>
<b>Gure burua ezagutzea eta onartzea eta besteak ulertzea</b>	<b>Desberdinak gara HH 3, 4 Nire burua deskribatzen ari naiz HH 5</b>
<b>Eguneroko emozio eta sentimenduak</b>	<b>Zer ari naiz adierazten? HH 3,4</b>

onartzea, kontrolatzea eta era egokian adieraztea.	Emozioen egunerokoa HH 5
Eguneroko ohiturak barneratzea, norbere gaitasunetan konfidantza izatea.	Zenbat gauza egiten ditugun!!! HH 3, 4 Hazten ari naiz HH 5
Norbere burua eta besteena ezagutzea, besteen gaitasun eta mugak errespetatzea.	Asma ezazu nor den HH 3, 4 eta 5
<b>EMOZIOEN ERREGULAZIOA</b>	
<b>HELBURUAK</b>	<b>JARDUERAK</b>
Beharra eta nahiaren arteko aldea aztertzea, ea emonioak ematen digun informazioa ezagutzea	Horrela sentitzen dut HH 3, 4 Nahi dut/ behar dut
Egoera bati aurre egiteko gaitasuna lantzea, sentitxen ditugun emozioak antzematea eta kalte egiten diguten emozioak kontrolatea	Orain bai, orain ez HH 3,4 Antzezpenak HH 5
Zerbait lortu baino lehenago itzaroteko gaitasuna lantzea, impulsibotasuna kontrolatzea, esfortzuaren hezkuntza lantzea	Ea eusten diozun HH 3,4 Bonboi kaxa HH 5
Triste jartzen gaituzten egoerak identifikatzea, eta kalte egiten diguten emozioak era egoki batean bideratzea	Zer egingo dut? HH 3,4 Nola moldatzen naiz emozioekin? Aulki magikoa HH 5
Tentsioei aurre egiten ikastea, erlaxazioa teknikak menderatzea eta irudikapena lantzea	Erlaxa zaitetz HH 3,4 Panpina mugikorra Bidaia magikoa Sabelaren gorabeherak HH 5
<b>AUTONOMIA EMOZIONALA</b>	
<b>HELBURUAK</b>	<b>JARDUERAK</b>
Eguneroko bizitzan sortzen diren egoera baikorrez jabetzea, norbere burua maitatzea, norbere gaitasun eta mugak ezagutzea	Nire urtebetetzea Nire momentu onena HH 3,4 Momentu oneneak Arduraduna naiz HH 5

Norbere burua onartzea, talde baten partaide sentitzea	Maite nauten pertsonak HH 3, 4 Erregea edo erregina naiz HH 5
Norbere gaitasun eta mugak ezagutzea eta onartzea, mugak hobetzeko aukera gisa ikustea eta esfortzuaren garrantziaz ohartzea	Badakit gauzak egiten HH 3, 4 Gaitasunaren trena HH5
Gustuko ditugun ekintzak ezagutzea, iritziak libreki adierazteko gaitasuna izatea, iritzi desberdinak errespetatzea eta “ez” esaten ikastea.	Nire iritzia da HH 3, 4 Gogoko dut/ ez dut gogoko HH 5
Erabakiak hartzeko ohitura lantzea, helburu pertsonalak finkatzea, atsekabeak gainditzen jakitea.	Nik nahi dudana egingo dut HH 3, 4 Ostiraleko bilera
<b>GIZA ABILEZIAK</b>	
<b>HELBURUAK</b>	<b>JARDUERAK</b>
Besteekiko errespetua izatea, hitz egiterakoan txanda errespetatzea, besteek adierazi nahi digutena ulertzea.	Zer esaten didazu? HH 3, 4 Mikrofonoz hitz egiten ari gara HH 5
Besteek egoera zehatz batean zer sentitzen duten irudikatzea, besteen emozioen seinaleak interpretatzen jakitea.	Konta iezaguzu HH 3, 4 Aurpegiak aztertzen ari gara HH 5
Bestekin elkarlanean aritzeko gaitasuna lantzea, elkarbanatzea bultzatzea, giza erlazioak aberastea.	Lagunduko al didazu? Ehunzangoa egingo dugu Puzzle bat egingo dugu HH 3, 4 Kidetze plana HH 5
Batak besteari hitz egin eta entzuteko ohitura sortzea, gatazkak gainditzeko indarkeriaren ordeztu beste estrategia batzuk erabiltzea, sentitzen duguna beldurrik gabe adieraztea.	Sentitzen dudana esango dizut HH 3, 4 Adostokia Zer egin dezaket? HH 5
Norbere iritzi eta nahiak besteen aurrean adierazten ikastea, gizartean hobeto bizitzeko arauak errespetatzen ikastea.	Hau atsegin dut HH 3, 4 Gustatzen zaidana aukeratzen dut Bizikidetzaren trena HH 5

<b>BIZITZEKO TREBETASUNAK</b>	
<b>HELBURUAK</b>	<b>JARDUERAK</b>
Norbere gaitasunetan konfiantza izatea, helburu pertsonalak finkatzen ikastea, helburuak lortzeko motibazioa ez galtzea.	Nola egin dezakegu? HH 3, 4 Gelako ametsen liburua HH 5
Helburu pertsonalak finkatzen laguntzea, gauza berriak lortzeko ausardia izatea, norbere buruan konfiantza izatea, atsekabea sentitu arren aurrera jarraitzen ikastea	Inurria eta txirritaren ipuina HH 3, 4 Lortu egin nahi nuke HH 5
Jaki ezberdinak probatzea, eta ondo jatearen garrantziaz jabetzen hastea. Talde-helburuak finkatzea, kortesiazko esamoldeak erabiltzeko ohitura izatea, giza erlazioak aberastea.	Denetik jaten ikasi nahi dut HH 3, 4  Gela atsegina HH 5
Gauza bakoitzak bere lekua duela ikastea, eta txukuntasunaren balioa lantzen hastea. Lanaren alderdi positiboak ikustea, esfortzuaren kontzeptuaz jabetzea, elikadura-ohitura osasuntsuak garatzea, erantzukizunak hartzen ikastea, taldean bizitzen ikastea.	Non-ote dago? HH 3, 4  Lanerako ohitura Txukuntasun-ohitura Osasunaren inguruko ohiturak HH 5
Laguntza eskatzeko eta emateko ohitura sortzea.	Noiz behar dut laguntza? Noiz lagun dezaket? HH 3, 4 Laguntzea eta laguntza eskatzea gustatzen zait  HH 5



## HELBURUAK

### Tutoretza Lehen Hezkuntzan

Lehen zikloa	Bigarren zikloa	Hirugarren zikloa
<p>1. Ikasleen pertsona-, familia-, ingurune eta eskola-ezaugarriak ezagutzea.</p> <p>2. Ikastetxearekin ohitzea (ezagutzen ez badute).</p> <p>3. Ikasleek ikasteko agertzen dituzten jarrerak, ezaugarriak eta estiloak pixkanaka eta modu sistematikoan behatzea.</p> <p>4. Bakoitzaren ezaugarri guztien onarpena bultzatzea, eta taldeko ikasle guztien integrazioa erraztea.</p> <p>5. Gorputza ezagutarazi eta balioestea, eta zentzumenen ezberdintasunak, funtzioak eta erabilerak aztertzea.</p>	<p>1. Ikasle bakoitzak alderdi fisiko, psikologiko eta pedagogikoei dagokienez maila pertsonalean, familian, eta gizarte eta ingurune mailan dituen ezaugarriak ezagutzea.</p> <p>2. Ikasleengan aurreko zikloetan edo oraingoan agertutako jarreraren behaketa sistematikoarekin jarraitzea.</p> <p>3. Gainerakoek bakoitzaren ezaugarriak onar ditzaten bultzatzea, eta taldeko integrazioa erraztu eta bideratzea.</p> <p>4. Ikasleei beren gorputzean gertatzen ari diren aldaketa morfologikoak eta funtzionalak</p>	<p>1. Ikasle bakoitzaren gaitasunak (jarrerak eta trebetasunak) ezagutzea eta horiek garatzen laguntzea.</p> <p>2. DBHra ahalik eta baldintzarik onenetan pasatzeko aukera ematea.</p> <p>3. Ikasleengan xede errealak jartzeko eta lortzeko gai senti daitezen jarrerak garatzea.</p> <p>4. Ikasleei beren gorputzean gertatzen ari diren aldaketa morfologikoei eta funtzionalei buruzko informazioa sakontzen laguntzea.</p> <p>5. Gizarteko sexu-rolen azterketaren bidez, estereotiporik gabeko sexu eta genero nortasuna barneratzen laguntzea.</p>

<p>6. Jarrerak moldatzearen bitartez balioak garatzea, eta lankidetzaren, elkarrekiko laguntza eta besteekiko errespetua sustatzea.</p> <p>7. Autonomia eta autozaintza ohiturak sustatzea.</p> <p>8. Familiekiko harremanak bultzatzea.</p> <p>9. Egungo zein etorkizuneko egokitzapen pertsonal, sozial eta akademikoa erraztuko duen Gizarte Trebetasun eta Autoestimuko programa bat garatzeko aukera ematea.</p> <p>10. Ikasgelan inplikaturako irakasleekin koordinatzea.</p>	<p>ezagutaraztea.</p> <p>5. Gizarteko sexu-rolen azterketaren bidez, estereotiporik gabeko sexu eta genero nortasuna barneratzen laguntzea.</p> <p>6. Ikasleari autokontrol pertsonalerako prozesua irakastea.</p> <p>7. Elkarrizketaren bidez, besteen eta beren ikuspuntuak balioesten irakastea erabakiak hartzeko eta gatazkak konpontzeko.</p> <p>8. Esperimentazio- eta sormen-jarduerak, eta pentsatzen eta ikasten ikasteko teknikak bultzatzea eta, horrela, autonomia handiagoa sustatzea.</p> <p>9. Familiekiko harremanak sustatzea.</p> <p>10. Egungo zein etorkizuneko egokitzapen pertsonal, sozial eta</p>	<p>6. Elkarrizketa gatazkak konpontzeko eta erabakiak hartzeko tresna gisa erabiltzea.</p> <p>7. Haien gizarte-errealitatea ezagutaraztea eta kritika konstruktiboa sustatzea.</p> <p>8. Esperimentazio- eta sormen-jarduerak, eta pentsatzen eta ikasten ikasteko teknikak bultzatzea eta, horrela, autonomia handiagoa sustatzea.</p> <p>9. Familiekiko harremanak sustatzea.</p> <p>10. Egungo zein etorkizuneko egokitzapen pertsonal, sozial eta akademikoa erraztuko duen Gizarte Trebetasun eta Autoestimuko programa bat garatzeko aukera ematea.</p> <p>11. Ikasgelan inplikaturako irakasleekin</p>
---	--	---

	akademikoa erraztuko duen Gizarte Trebetasun eta Autoestimuko programa bat garatzeko aukera ematea. 11. Ikasgelan inplikaturako irakasleekin koordinatzea.	
--	--	--

## JARDUERAGUNEAK

JARDUERAGUNEAK	BALIABIDEAK ETA JARDUERAK
<p>I. Ikasleen harrera eta integrazioa</p> <p>Bai ziklo edo etapa baten hasieran, bai tutorez aldatzen denean edo ikasle berriak taldean sartzen direnean, ezarritako edo ezarri beharreko harremanak asko aldatzen dira. Hori dela eta, oso garrantzitsua da lehen harreman hau. Alde batetik, gure aurrean daukagun taldeari buruzko informazio asko jasoko dugu eta, bestetik, gure ikasleei harremanak erraztuko dizkiegu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Harrera- eta aurkezpen-jarduerak:           <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ezagutza-jokoak</li> <li>- Distentsio-jokoak</li> <li>- Konfiantza-jokoak</li> </ul> </li> <li>• Taldean integratzeko jarduerak:           <ul style="list-style-type: none"> <li>- Komunikazio-jokoak</li> <li>- Baieztapen-jokoak</li> </ul> </li> </ul>
<p>II. Gela/taldearen antolamendua eta funtzionamendua (Elkarrekin bizitzen irakatsi)</p> <p>Atal honetan, taldekide bakoitzaren informazioaren bilketari (espedienteen,</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikasleei buruzko informazioa biltzeko ekintzak (tutoreak egiteko): espedienteak berrikusi, taldearen karpeta irakurri, beste irakasle batzuekin informazioa trukatu,</li> </ul>

